

# DROGETEN

**ITTURRI**

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria  
2025eko URTARRILA · 340 zenbakia



**Nekane Pradera,  
mendi-duatloietan trebe**





# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, implantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Gaia: Ume-kantua

## Txakolin

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Txakolin txakolin  
txako txako txakolin,  
txakolin txakolin  
txakolinak on egin!

Txakolintxua gozua da-ta  
eran lagunak tragura!



[drogeteniturri.eus](http://drogeteniturri.eus)



**Euskal  
Birusa  
Elkarteá**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)  
[www.drogeteniturri.eus](http://www.drogeteniturri.eus)

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Eneritz Aranburu,  
Estibalitz González,  
Nahia Ruiz Albizuri  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA**

**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Nekane Pradera.

**LAGUNTAILEAK:**

Eskolabarri Ikastetxea, Patxi López,  
Valentin Mugarza eta Alex Ugena.

**ARGAZKIAK:**

Fernan Alonso, Maddi Goikoetxea,  
Eskolabarri Ikastetxea, Estibalitz  
González, Valentin Mugarza, Nekane  
Pradera, Martin Solozabal, Ekhi  
Uranga eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Maren Aguirre, Manex Prieto  
eta Alex Gonzalez.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Maddi Goikoetxea Goiogana · Bartzelona

# “Zoritxarrez, artea oraindik nahiko arlo pribilegiatua da”

Irailean joan zen Bartzelonara Maddi Goikoetxea ermuarra, ikasketekin jarraitu ahal izateko. Gaur egun, masterra egiteaz gain, dantzako irakaslea da hango Euskal Etxean.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

## Zergatik joan zinen?

Nire ikasketak jarraitzeko aukera izan zen Bartzelona: zinema, antzerki eta telebistarako eszenografiako masterra egiteko Madril edo Bartzelona izan behar ziren.

## Zer ikasten duzu?

Barne diseinua ikasi nuen, baina ez nuen nire burua etxebizitza pribatuak diseinatzen ikusten. Nire diseinuekin eragin bat sortu nahi nuen pertsonengan, diseinuak mezu bat bidaltzeko ere balio duelako, arte adierazpen bat delako ere. Arte eszenikoen mundua

deigarria egin zait beti, izan daiteke dantzarekiko daukadan loturagatik edota argazkilaritzak emandako begiradagatik, baina arte eszenikoak gertuagotik ikertu nahi nituen.

## Noiz joan zinen?


Irailaren hasieran etorri nintzen nire gurasoen laguntzaz etxe aldaketa egitera.

## Erabaki zaila izan zen?

Duela 3 urte hartu nuen erabakia, nire jakintzak esparru espezifikoko horretan garatzeko interesa bainuen. Beraz,



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**  
Lege eta  
kontu aholkularitza  
Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com



**JULEN**  
**JULEN IZARRA  
GARRAIOAK**  
**Bidegain kalea 1  
48240 BERRIZ  
636 958 339**



**AMAIA  
HARATEGIA**  
**Bertoko Okelak**  
Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**



**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen





oso argi neukan; erabakia zaila izan bazen ekonomikoki suposatzen duenagatik izan zen. Masterra eskola pribatuetan bakarrik ikasi daiteke, artea oraindik arlo nahiko pribilegiatua baita zoritxarrez, eta Bartzelonan bizitzea ere ez da merkea. Ez dut gezurrik esango, etortzeko momentua heldu zenean kostatu egin zitzaidan nire ingurua bertan utzi eta etxetik urrun egotea, baina esperientzia bizitzeko gogoekin nengoan.

### **Nola hasi zinen lanean?**

Nire aisialdian euskal dantzekin jarraitzeko aukerari begira, Bartzelonako Euskal Etxera joan nintzen galdezka eta nire curriculuma uzteko aprobetxatu nuen. Astebetera Euskal Etxeko dei bat jaso nuen, pertsona baten beharra zutela hasiberrien ikastaroan irakasle izateko; baiezkoa eman nuen.

### **Zelan moldatzen zara katalanez?**

Ez dakit hitz egiten, hitz batzuk badakizkit baina komunikatzeko oraindik denboratxoa beharko nuke. Ulertzeko gai naiz eta elkarrizketa bat mantendu dezaket nik gaztelaniaz erantzunda, esan dezaket belarria ohitu zaidala. Nire ikasketak gaztelaniaz dira eta nire inguruko jende gehiena kanpotarra da. Pena da, egia esan, hemen egonda inguruan daukadan jendeak gaztelaniaz egitea.

### **Zer egiten duzu aisialdian?**

Nire aisialdia ez da asko aldatu: kirola, argazkilaritza eta kultura dira nire aisialdiaren parte. Bartzelonak aukera asko ematen ditu, kultura nahiko eskuragarri dago eta hirian zehar mugitzea oso erraza da. Nire



Maddi Goikoetxea Bartzelonako Hivernacle eraikinaren aurrean.

puskideekin batera irteerak egiten ditut Bartzelonako leku desberdinak ezagutzeko edota auzo desberdinetako jaietara hurbiltzen gara.

### **Zerbait botatzen duzu faltan?**

Herriko "lasaitasuna" beti botatzen da faltan. Hiri batean bizitzea, Bartzelona bezalako hiri batean, desberdina da. Bertan dituzun harremanak, lagunak eta familia, zure betiko ohiturak... Baina badakizu horiek bertan egongo direla bueltatzean.

### **Noiz zatoz bueltan Ermura?**

Masterra uztailean bukatzen da, beraz, abuztuan berriz bueltan egongo naiz. Nire helburua hemen masterra da eta bertako ikasketak Euskal Herriko proiektuetara ekartzea da. Ez dut nire etorkizuna Bartzelonan ikusten momentuz.

# “SMOS sateliteak sortutako datuak prozesatzea eta espaziotik detektatutako interferentziak aztertzea da nire lana”

Ekhi Uranga · Telekomunikazio Ingeniaria



Hemezortzi urterekin Madrilera joan zen Telekomunikazio Ingeniaritza ikasteko, eta gaur egun Ekhi Urangak (Ermua, 1985) European Space Agency egiten du lan, hau da, Europako espazio agentzian. SMOS sateliteak sorten duen informazioa prozesatzeaz gain, aditua da Lurra eta sateliteen artean sortzen diren interferentziak aurkitzen. Bidaiazale amorratua, 2024an bere ehungarren herrialdea bisitatu du.

Testua **DORLETA VIDAL**

## Non egiten duzu lan gaur egun?

European Space Agency (ESA) egiten dut lan, Madrilen dagoen European Space Astronomy Centre (ESAC), hain zuzen ere.

## Zein izan da zure ibilbidea ikasketak bukatu zenituenetik ESAC-en lanean hasi arte?

23 urterekin hasi nintzen lanean, eta ordutik enpresa berdinentzat egiten dut lan. Hasiberrian, Antartikara joan nintzen hilabetez, Juan Carlos I basean telekomunikazio proiektu bat burutzer. Horren ostean, telekomunikazio zifratua egiten hasi nintzen Espainiako Atzerri Ministerioarentzat, batez ere herrialde gatazkatsuen enbaxadetan. Lan horri esker hasi nintzen bidaiatzen, eta ezohiko herrialdeak ezagutu nituen: Siria, Ginea, Pakistan...

## Hor sortu zitzaizun bidaiatzeko grina?

Bai, eta 2024an nire ehungarren herrialdea bisitatu dut: batzuk lanari esker, eta beste batzuk zaletasunagatik.

## Eta nola hasi zinen European Space Agency?

Nire enpresan aldaketak egon ziren, eta 2013an lanpostua eskaini zidaten ESAC-en, Madrilan. SMOS satelitea kudeatzen dugu bertan (Soil Moisture and Ocean Salinity satelitea, alegia). Horrek lurraren hezetasuna eta itsasoaren gazitasuna neurtzen du eta, zenbait parametroren bitartez, aldaketa klimatikoa

aztertzen laguntzen digu. Satelitearen arlo guztiak Madrilgo egoitzatik kudeatzen dira, beraz, prozesu guztien berri izateko aukera daukat, tartean, hegaldia, eta horrek asko ikasteko aukera ematen du.

## Zein da zure lana, zehatz-mehatz?

Sateliteak datuak jaisten ditut, prozesatu, eta komunitate zientifikora zabaltzen ditut.

## Nola sortzen dira aipatu dituzun datu horiek?

Lurrak seinale bat emititzen du satelitera, tentsio bat, eta matrize baten bitartez bueltan datorren tentsioa aztertzen dugu, hau da, haren magnitudea edo potentzia. Temperature Brightness (distira tenperatura) deritzon kontzeptuarekin egiten dugulan: zenbakiak jasotzen ditugu, eta Lurraren mapa baten gainean haiek margotzen ditugu, emaitza ikusteko.

## Eta emaitza edo ondorio horiek zertarako erabiltzen dira? Zein da haien helburua?

Erabilera anitzak dituzte, esaterako, meteorologia agentziek erabiltzen dituzte eguraldiaren iragarpena

**"Nire lana baliagarria da aldaketa klimatikoa eta meteorologia lantzen duten agentzietzat"**



Ekhi Uranga Very Large Array astronomia-behatokiaren antena batean, Mexico Berrian (AEB).

egin ahal izateko (beste satellite batzuetatik jasotako datuekin konbinatuta). Bestalde, aldaketa klimatikoa aztertzen dituzten zientifikoentzat baliaerriak dira, hainbat unibertsitatek ere eskatzen dituzte...

### **Zenbaketan murgilduta bizi zara, beraz...**

Bueno, lan horrez gain, Lurra eta satellitearen artean egon daitezkeen interferentziez ere ardurutzen naiz, haiek aurkitzea badelako ere nire lanaren zati garrantzitsua. Adibidez, Alemanian jatorria duen interferentzia bat antzematen badut, txostena egin, eta hango gobernuarekin harremanetan jartzen gara, interferentzia hori topatu eta itzali dezan.

### **Ohikoa da horrelakoak topatzea?**

Egia esan azkenaldian interferentzia asko ditugu gerran dauden tokietan jatorria dutenak, GPS seinaleak blokeatzeko, hain zuzen ere.

### **Lan konplexua ematen du...**

Bai, bueno, lan ezberdina da, ezohikoa askorentzat. Izan ere, interferentzien gaien inguruan hitzaldiak ematen ditut mundu osoan zehar 2016tik, eta horrek ere bidaiatzeko aukera eman dit berriro ere. Aurten, adibidez, Australiara joango naiz.

### **Ba al dago zure lanean harritu zaituenik?**

Eguneroko lanean ikusten dituzun gauzei ohitu egiten zara, baina gure egoitzan gauza harrigarriak ikus daitezke, adibidez, eguzkira joan den Solar Orbiter satellitea, 67P/Churiumov-Guerasimenko kometaren inguruan orbitatu zuen Rosetta satellitea... Eta asko ikasten da lankideekin hitz egiten eta antolatzen diren ekitaldietan parte hartzen. Gure egoitza nagusian,



Uranga NASAko Space Centerren, Houston (AEB).



Venusera eta Martera bidaiatzeko proiektuak lantzen dira, eta hori politagoa iruditzen zait Lurrari begira egotea baino: interesgarriagoa da, nahiz eta nire arloan egiten den lana praktikoagoa den, erabilgarriagoa.

### **Zenbat lagunek osatzen duzue zure lantaldea eta zein da haien profila?**

Madrilen hamar lagun gaude, baina gure egoitza Erroman dago, eta bertan dago nire nagusia ere. Alde zientifikoa Frantzian dago... Zaila da zenbaki bat ematea! Iaz, SMOS satellitearen 15. urteurrena ospatu genuen Sizilian, eta 75 langile bildu ginen. Profilarri dagokionez, nire lantaldean erdia gizonezkoak gara eta erdia emakumezkoak, guztiak 30-60 urte bitartekoak. Gure artean gaztelaniaz hitz egiten dugu, baina laneko hizkuntza ofiziala ingeleza da, eta dokumentazio eta bilera guztiak hizkuntza horretan dira.

### **Espazioaren esparruan, zein da Espainiaren egoera baliabideei eta inbertsioei dagokienez?**

Nire ustez momentu honetan egoera ez da oso ona. Orain arte, Gobernuak diru ekarpenak egiten zizkion ESARI proiektuak Espainiara ekartzeko. Izan ere, SMOS proiektua Erroman egon behar zen, baina diru-ekarpen berezi bati esker, proiektua Madrilen kokatu zuten. Kontua da Gobernuak agentzia propioa sortu zuela 2023an, Espainiako Espazio Agentzia, ESAko

**"GPS seinaleak blokeatzeko interferentzia asko ditugu, gerran dauden tokietan jatorria dutenak"**

**"Maila zientifikoan ez dago lehia handia herrialde ezberdinen artean espazioaren esparruan"**





Ernuarra interferentzien inguruko hitzaldi batean.

proiektuak ekartzeko, baina agentzia horrek oraindik ez dauka aurrekonturik, ez da diru-ekarpenik egin... geldi dago.

**Zein herrialdek inbertitzen du gehien espazio kontuetan?** Betidanik, AEB izan da diru gehien inbertitu duena, baina nire ustez Txina izango da hurrengo garailea espazioan. Eta India ere oso indartsu dabil. Aipatzekoa da ere, gaur egun enpresa pribatu asko sartu direla

**"Espazioak jakin-mina sortzen du, baina askotan jendeak ez die kasu egiten datu ofizialei"**

lehian, tartean Elon Musk eta Jeff Bezos enpresarietak, eta Amazoneko jabea den Bezosen aurreko astean jarri zuen orbitan bere suziria. Espainian ere enpresa pribatu bat dago Elxen, PLD Space, baina European zailagoa da proiektuak burutzea.

**Herrialdeen artean, lehia handia dago?**

Ez, zientzia mailan ez. Horren adibide da gaur egun Errusiak eta AEBk Nazioarteko Espazio Estazioa partekatzen dutela, esaterako.

**Sumatzen duzu espazioak jakin-mina sortzen duela?**

Bai, baina askotan jendeak ez die kasu egiten datu ofizialei, asmakeriak nahiago ditu, telebistan agertzen diren istorioak: *terraplanismoa*, esaterako, puri-purian dago. Niri askotan estralurtarren inguruan galdetzen didate... zer dakit nik, bada!

**Nola ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?**

Gustatuko litzaidake espazioaren munduan jarraitzea, baina aldaketak etorriko dira: SMOS sateliteak bost urte eman behar izan zituen espazioan, eta 15 bete ditu, beraz, momenturen batean proiektu hori bukatuko da. 2030ean CIMR satelitea jaurtiko da espaziora, eta SMOS proiektuaren nolabaiteko jarraipena izango da, baina teknologia berriekin. Horretan lan egitea gustatuko litzaidake. Dena den, interferentzien munduan espezializatu naiz, edozein satelitetan lan egiteko aukera ematen didalako. Bestalde, ESAko funtzionarioa izatea gustatuko litzaidake, baina horretarako, nire arloan, Holandara joan behar da, eta niri hemen bizitzea gustatzen zait: Euskal Herrian daukat familia, Madrilen lana, eta Almerian etxetxo bat: hiru leku horietako klimarekin pozik bizi naiz! Herrialde asko bisitatu ditut, eta asko gustatu izan zaizkit, baina maite dut etxera bueltatzea!

"Badira, inoiz ezabatzen ez diren oroitzapenekin batera, inoiz ere ahaztuko ez ditugun lagunak"



Vega Martinez Rioja

2025/01/19

"Badira, inoiz ezabatzen ez diren oroitzapenekin batera, inoiz ere ahaztuko ez ditugun lagunak"

MAITE ZAITUGU  
- ZURE LAGUNAK

# “Norberak disfrutatzen dabenek badu, errezaue da seme-alabak horretara bultzatzie, kirolera adibidez. Geu gara eredu”

Nekane Pradera · Euskal Herriko Mendi-Duatloi zirkuituko 2024ko txapelduna



Bizi guztixen kirola egiten jardun dabenek familixa mallabitar bateko loba zaharrena da Nekane. Gasteizen bizi da, gorpuzt hezkuntzako irakaslie da, 4 urteko mutikotxo baten ama eta mendi duatloitetako kirolarixe da.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

**Praderatarrak beti pelotie eskuen ikusi izen doguz, frontoian onduen bizi izetera, euren ordu librieke han pasetan zittuen. Eta zu, Nekane, mendixen gora eta behera**

Bai oso kirolarixek izen gara beti, aitte eta osaba danek pelotan ibili zien. Baina ez pelotan bakarrik, palan,

frontenisien, mendire be asko jueten ginenek umiek ginenek. Gero nagusittu garenenek nire nebie Athletixen ibili zan, oin mendi lasterketetan hasi da. Zaldibarko lehengusu Mikelek jarraitzen dau futbolien jokatzenek. Eta lehengusu txikixek hor diherdue pelotan, palan eta futbolien. Ni Mallebiko eskolatik Ermure DBH ikestera

juen nitzenenek atletismo taldeen sartu nitzen. Pisu eta disko jaurtiketa eitten nittun, Euskadiko txapeldun geratu nitzen urte baten eta estatu mailan taldekako kategorixan laugarren.

**Eta bide horretatik jarraitxu zendun ikasketek dagokixuek, ezta?**

Bai, gorpuzt hezkuntzako irakaslie naz. Hemen, Gasteizen, egin neban karrerie. Oso lizentziatura praktikue da eta orduen be egunero egiten gendun kirola. Gimnasio baten hasi nitzen monitorea moduen eta han nenbilela atara neban spinningeko irakasle titulue. Gasteizen paseoko bizikletaz mobidu izen naz beti, ikasketa sasoienek eta gaur egun be bai. Mendiko bizikletarik ez neban hartzen, euki be ez neuken eta.



Pradera, ezkerrean, Ibarrao Piparra XIV. Mendi Duatloian, 2024ko azaroan.

## "Nahixago dot bizikletie arineketan egittie baino. Bizikletie politxaue da, teknikuaua"

### Mendi duatloietan mendiko bizikletan jardun behar dozue ba, ezta?

Eta arineketan be bai. Bi zeregin daukaguz, mendiko bizikletan eta mendixen ziherrineketan. Eta egixe esan nahixago dot bizikletie arineketan egittie baino. Bizikletie politxaue da, teknikuaua; arineketarako alper samarra naz.

### Lehenengoz parte hartu zendun duatloie nun izen zan?

Lehenengoz Mallabixen hartu neban parte, bertan egin zan hirugarrenien oker ez banabil, 2015ien. Proba herrikoie egin neban, motzaue eta sensazino onekin amaitxu neban, gustau egin jatan. Hasierako duatloietan, bestiekin konparatziek bildurtzen ninun, ez neban azkena izeteik nahi, eta ez neban zirkuituko proba danetan izena emoten. Teknikoki esperientzia falta neban, bai arineketan zein bizikletan mendixen ibiltzeko eta abar. Baina gero pikau egitten zara, gustau egiten jatzu erronka ipintxie zeure buruari. Presino asko da baina engantxau egitten dau. Norbere burue gaınditzeko proba bat da. Tripako minekin egoten nitzen hasieran, nerbixuek, presio asko sentitzen neban eta ridikulue egitteko bilurre be bai. Eta gainera neska gitxi gara, baina hor gabiz.

### Mendi duatloi probak ze sasoitan izeten dira?



Nekane Pradera, Amasan.

Iraila, urria eta azaroan jokutzen dira probak. 2024en sei egin ziren bakarrik, aurreko urtietan zortzi edo bederatzik jokatu izen dira eta pena bat da. Ni proba honetan parte hartzen hasi nitzenien emakume gehiago

**Trastelekuak**  
partikularrentzat



**Biltegiak**  
enpresentzat

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua  
621 325 477 / info@lekubox.com  
www.lekubox.com

**San Lorenzo ikastetxea**  
Guztion eskola



**Aurre-  
matrikula:  
Otsailaren  
3tik 14ra**

Gipuzkoa etorbidea z/g  
943 17 00 68 / 747 48 02 37  
sanlorenzo@sanlorenzoeskola.net





**"Norbere buruai limitiek topau eta gainditzeko aukera paregabe dala uste dot"**

**"Mallabixen be ibiliko naz, Zazpi Pago Mendi Lasterketan parte hartuko dot maiatzaren 17xen"**

ginen baina beteranak erretiratzan juen dira eta gitxi sartu dira barrixek zirkuituen. Proba desberdinetan lortuteko puntuazinue batzen joaten da eta nik 2024en proba danak jokatu nitxun. Otsailien Arronizen egingo da bat eta Kanpezun Euskobiken parte hartuko dot ekainaren zazpizen. 111 kilometro eta 65 kilometrotako bi zirkuitu izengo dira Kanpezun. Euskal Herrittik kanpo, Sorian egiten da bat hiru etapatan, barixeku gabien, zapatu goxien eta domeka goxien.

**Barixekuen, gabaz?**

Bai, argi frontalekin ibili biher izeten dogu, ilunetan errekek pasetan eta abar, oso politxe da eta jente askok parte hartzen dau. Dorsalak lortzeko gatzak izeten dira batzuk, famie hartzen dabe eta, Soriako honek adibidez. Mallabixen be ibiliko naz, Zazpi Pago Mendi -lasterketan parte hartuko dot maiatzaren 17xen.

**Bide batez herrixe bisitau eta familixie ikusi. Hara eta hona be familian ibiliko zara, ezta?**

Ahal danien umiaz beti, bai. Gainera oso garrantzitsue iruditzen jata umiei norbere zaletasunek transmititzie. Norberak disfrutatzen daben zeozer egitten badau, errezaue da seme-alabak horretara bultzatzie, kirolera adibidez. Geu gara eredu. Lau urte beteko dittu nire semiek otsailien eta iruditzen jata euren buruagan presinue gitxiago izen leikela, kudeatzeko tresnak hobeto erabiltzeko kapaz izen leikezalako guraso



Pradera, Adunako kaleetan.

moduen guk be holako egoerak bizi izen doguzelako. Konfiantzie oso garrantzitsue da honako mendi probetan. Min hartzeko bilurrez eta norbere buruagan segurtasun barik ibiltzen bazara, arriskutsue izen leike mendi duatloietan ibiltxie.

**Ze etorkizun ikusten deutsezue Euskal Herriko mendi duatloiei?**

Ba gitxitzen doiez eta pena bat da. Beste herri batzutan antolatzen hasten ez badira, ez dago erreza mantentzen, baina jentie be biher da parte hartzeko. Batez be neskak animauko neukez, norbere buruai limitiek topau eta gainditzeko aukera paregabe dala uste dot. Norberangan konfiantzie eta autoestimie garatzeko.

**Ferreteria ANBOTO**  
Burdindegi

Orain **KOTXEXO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25  
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Bitsi-denda Tailor propioa Ertza-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidua 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527

## Mallabiko Udalak 2.598.700 euroko aurrekontua izango du 2025ean

Mallabiko Udalak argitaratu berri duen *Ze berri!* aldizkariaren bigarren zenbakian irakurri daitekeenez, 2025ean 2.598.700 euroko aurrekontua kudeatuko du. Aurrekontu hori EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin onartu da. Jarraian, herrian burutuko diren proiektuetako batzuk:

### Azpiegiturak eta ingurunea

- Goitondoko autobus-geltokia berritzea eta hobetzea: 110.000 euro.
- LHIKko aparkalekuaren irisgarritasuna hobetzea: 30.000 euro.
- Frontoiko gimnasioa ixtea klimatizazioa hobetzeko: 46.000 euro.

### Energia-eraginkortasuna eta ingurumen-jasangarritasuna:


- Udal lurretan eguzki-plaken energia kudeatzeko etxola bat jartzea: 30.000 euro.
- Igoera hiri-garbiketarako eta hondakinen kudeaketarako partidetan: 60.360 euro (garbiketa) eta 109.210 euro (hondakinak).
- Katuen koloniak kontrolatzea: 22.000 euro.

### Kultura eta gizartea

- Liburutegiko altzariak berritzea, bereziki Txiki-Txokoa: 15.000 euro.
- Ezpata-dantzari eguna: 3.000 euro.
- Euskaraldia: 3.000 euro.

## Hainbat kirol eta kultur ekintza burutuko dira Mallabian otsailean

- Otsailaren 3an, 10ean, 17an eta 24an: arropa egokitu eta pertsonalizatzeko tailerra. Kontzejuzarrear 18:00etatik 20:00etara, Berbalagunek antolatuta.
- Otsailaren 8an: Emakumezkoen Elite mailako gomazko paleta txapelketa, ligako partida. Honekin lotuta, martxoaren 8an ekintza berezia egingo da: Emakumezkoen Elite mailako gomazko paleta txapelketa, finala.
- Otsailaren 11n, 18an eta 25ean: Biodantza Kontzejuzarrear 19:00etatik 21:00etara, Nahikari Emakume Elkarteak antolatuta.
- Otsailaren 20an: Plazan dantzan Kontzejuzarrear 19:00etatik 20:00etara, Berbalagunek zuzenduta.
- Otsailaren 22an: Ados Pilota Binakako Txapelketa (emakumeak) egingo da herriko frontoian 17:00etan, Udalak antolatuta.
- Otsailaren 27an: Eguen Zuri eguna ospatuko da. Inauterietako egitaraua prest ez dagoen arren, Mallabiko Udalak jakinarazi du iaz burutu ziren ekintza guztiak egingo direla aurrean ere (Skimetrojea izan ezik). "Laster argitaratuko dugu programa xehatua, adin guztietarako ordutegiak, kokapenak eta proposamenak jasoko dituen", jakinarazi dute.



**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**  
**PALACIOS SM**  
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
 GREMIOEN KUDEAKETA  
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
 San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
 info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com  
**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**



**Torrealday**  
 ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA  
 ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA



Arandoño auzoko Bengo baserria elurtzak zurituta.  
Argazkilaria: Fernan Alonso.





# Otsailaren 28an irtengo da Hartza kobazulotik

1990. urtetik aurrera egin den bezala, Hartza Eguna ospatuko da Ermuan Eguen Zuri biharamunean. Euskal Birusak eta herriko hainbat eskolen elkarlanari esker burutzen den kalejira hau Santixapeko iturrian izango du abiapuntua, 18:30ean. Antolatzaileek koko jantzia ipintzera animatzen dituzte parte-hartzaile guztiak.

**A**urtengo edizioan, soinuaren kalitateari erreparatu nahi izan diote antolatzaileek. Hori dela-eta Iraia Sarasua abeslari ermuarrak abestuko ditu Hartzaren Koplak mikrofona eskuetan, eta nahi duten herritar guztiak berarekin batera kantatu ahal izango dute. Gainera, Quico Pugès musikari katalanak iaz sortutako fandangoaz eta biribilketaz gozatzeko aukera egongo da.

Abestiak  
ald ez



aurretik erreparatu nahi dituztenek, hemen daukate aukera:

## Hartzaren koplak

**1\_** Patxi Urkoko etori jakun lehengo egunian esaten, animala bat han ebillela bazter guztiak apurtuzten; eskopetekin hara juateko pizti hori harrapatzen, inguru hartako baserritarrak ez ebela lorik egiten. Hara juañ giñen aldra ederra, zer ote zan hori ikusten!

**2\_** Baso Baltz eta Urko erreka sastrak genduzan jorratu, baiña guk ezin izan genduan animalirik bilatu; soñeko arropak apurte arte aurrera genduan jarraitu. Non uste dozu, adiskidia, egin genduala aurkitu? Mañako lezan sartuta euan, hantxe egin genduan hartu!

**3\_** Animala hau ez dakigula dan hartza ala basurdea, basamortuan honek pasau dau egarria eta gosia; begiratuta beronek dauka errukarizko plantia, beroni jaten emotiarren eskatzen dogu limosnia. Erruki zaitetz jende txit ona, kendu daiogun gosia!

**4\_** Animala hau atxiki bat da guk diru pixkat batzeko, horren kontura gaur arratsian jan da edan ondo egiteko; borondaterik baldin badozu jendiar guri emoteko, zure nagiak atara eizuz dozuzen sosak askatzeko. Poltsa hau bete bagoaz eta heldu da ordua afaltzeko!

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81

**SAGARDUI**  
poltsak  
Zubiaurre 20 - ERMUA - 943 170305

**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS  
Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak  
Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak  
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eltxo-sareak  
Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)  
Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

# “Sukaldean, presiopean egiten dut lan ondoen”

Martin Solozabal · Sukaldaria



Leioako Ostalaritza Eskolan ikasi zuen Martin Solozabalek (Ermua, 2000), eta ordutik Michelin Izarra duten zenbait jatetxetan egin du lan, tartean, Martin Berasategiuren ondoan. Freskoetan espezializatu arren, parrillak ditu gustukoak eta horretan da trebean. Gaur egun, hainbat lan eskaintza ditu mahai gainean.

Testua **DORLETA VIDAL**

**2022an bukatu zenituen Sukaldaritzako Goi Mailako ikasketak Leioako Ostalaritza Eskolan, eta ordutik ospe handiko jatetxeetan egin duzu lan. Zein izan da zure ibilbidea?**

Ikasten nuen bitartean Ermuko jatetxe batean egin nuen lan urte eta erdiz: ogitartekoak prestatzen nituen, hanburgesak, *nachoak*, platerak garbitu... Azken ikasturtean, praktikak egiteko unea heldu zitzaidanean, irakasleek esan zidaten nire mailarekin, Michelin Izarra zuen jatetxe batera bidaliko nindutela, nahiz eta nik ez nuen nire burua horretan ikusten... Hala ere, Zornotzako Boroa jatetxera bidali ninduten, Michelin Izar bat duena. Praktikak hasi, eta laugarren egunean lan-kontratua egin zidaten.

**Gogoratzen duzu laneko lehen eguna?**

Bai, oso urduri joan nintzen. Asteartetik larunbatera egiten nuen lan, eta Vitalie Nofit chefarekin lan egiteko aukera izan nuen. Oso serioa zen, baina jatorra iruditu zitzaidan. Beti zegoen gauzak azaltzeko prest.

**Zer ikasi zenuen bertan?**

Sukaldean ordena izan behar dela, eta gauzak beti era berean egin behar direla.

**Zenbat denbora eman zenuen bertan?**

Urte eta erdi, eta handik Martin Berasateguik Bilbon zeukan Ola Martin Berasategui jatetxera joan nintzen. Urtebetez egin nuen han lan, berriztatze lanak egiteko itxi zutenera arte, hain zuzen ere.

**Nola sortu zitzaizun Zornotzatik Bilbora joateko aukera?**

Aitaren lagun bat ardo-banatzailea da, eta Berasategiuren jatetxera joan zen egun batean,





nitaz hitz egin zien. Telefona eskatu zioten, eta whatsapp mezua bidali zidaten zuzenean, eurekin lan egiteko proposatzeko. Harrituta geratu nintzen! **Sukaldaritzza tradizio-naletik, goi-mailako sukaldaritzara aldaketa egin zenuen...**

Bai, Berasateguirenean teknikak eleganteagoak dira, osagai guztiak pisatzen dira, plateren aurkezpenak garrantzi handia dauka... Lan egiteko modua ezberdina da, baina sukaldaritzza antzekoa da. **Tresna bereziak erabiliko dira...**

Bai, esferifikazioak egiteko koilara, izozkiak egiteko makina, hamaika zartagin eta labana mota, egurrezko labea eta puntako hainbat labe (Josperra, esaterako), okela epeltzeko makina... Material horiek guztiak kozinatzeko modua aldatzen dute.

**Eta osagaiak dagokienez...**

Ia guztia berria zen niretzat, ezin dut bakarria aipatu! **Bertako janaria probatzeko aukera izan zenuen?**

Bai, baina jatu txarra naiz, nahiago dut janari arrunta. Egunero oilasko-paparra patatekin jango nuke! **Zein da horrelako jatetxera batera doan jendearen profila?**



Martin Solozabal, bigarrena ezkerretik hasita, lankideekin batera janaria platereratzan zerbitzu batean.

50 urte inguruko pertsonak batetik, eta bestetik 30 urte inguruko bikoteak. Gehienak, gainera, atzeritarrak: %90 inguru.

**Zer ikasi zenuen bertan?**

Ordena ezinbestekoa dela, gauzak beti leku berean laga behar direla, osagaiak pisatzeak garrantzia duela, eta diru-kontuak: hornitzaileei zer eskatu eta zer ez, zenbat diru botatzen den zakarrontzira kalkulatu...

**Martin Berasateguirekin eskuz esku lan egiteko aukera izan zenuen?**

Bai, tarteka. Bera Donostiako jatetxean egoten zen normalean, eta ni bere zuzendaritzapean zegoen lantaldearekin egoten nintzen Bilbon. Hala, gure, karta aldatzen zenean, gurekin biltzen zen, plater guztiak prestatzen zituen, eta azalpenak eman. Oso jatorra eta hurbila da.

**Ostalaritzan ordu asko egin behar da lan. Zer moduz ordutegi aldetik?**

Egunean ordu asko egin behar izaten dira lan (14-16 ordu), astelehenetik igandera, baina gero egunak libre izateko aukera ere badago, eta horrek konpentsatzen du.

**Ostalaritzza Eskolan ikasitakoa eta lanean egin duzuna oso ezberdina izan da?**

Oinarrizkoa berdina da, baina praktikatzen ikasten da gehien.

**Telebistako saio ezberdinetan ikusten da estres handia egoten dela sukaldean. Hala da?**

**Sukaldaritzza tradizionala ala goi mailakoa?**

Lan egiteko berdin zait; jateko, tradizionala nahiago dut.

**Sukaldean izan beharreko ezinbesteko osagaiak?**

Gatza, olio, esnea, gurina, arrautzak...

**Gehien erabiltzen duzun produktua?**

Barazkiak: tipula, azenarioa, porruak, piper gorriak eta berdeak... Errezeta guztietan erabiltzen dira.

**Laguntzat eta familiarentzat kozinatzen duzu?**

Bai, gustatzen zait haientzat janaria prestatzea, inolako presiorik gabe.

**Egun horietan, zein da zure espezialitatea?**

Txipiroiak, krocketak, katxopoa...

Ni egon naizen jatetxeetan sukaldariak maila altua daukate eta ohituta daude horrela lan egiten, baina sukalde txikiagoetan tentsio handia egoten da, bai. Gainera egoltra asko dago, eta horrek lana zailtzen du.

### **Zu ondo moldatzen zara presiopean?**

Bai, lasai nagoenean baino hobeto, esango nuke. Bestela segituan despistatzen naiz.

### **Zertaz arduratu izan zara sukaldean?**

Parrillaz, batez ere okelak egiteaz, baina baita arraina ere. Hori da sukaldean gehien gustatzen zaidan lana, eta ondoen egiten dudana. Hala ere, lankideei laguntzeko prest nago beti.

### **Azken esperientzia atzerrian izan zenuen....**

Bai, kanpora joateko gogoia nuen, eta Berasateguiaren etapa bukatutakoan, Alemaniara joan nintzen, hotel-jaregi batera. Bi urterako joan nintzen, baina hilabete eta erdi egon naiz bertan, eta ez da esperientzia ona izan: bazkaria eta barazkiak izoztuak ziren, dena moztuta zetorren... Ez zuen merezi bertan jarraitzea eta bueltatu egin nintzen.

### **Gaur egun non egiten duzu lan?**

Momentu honetan ez nago lanean, baina hainbat



Martin Solozabal eta Martin Berasategui sukaldariak Ola jatetxeke sukaldean.

**"Sukaldean garrantzitsua da ordenatua izatea eta gauzak beti modu berean egitea"**

**"Alemaniara joan nintzen lanera, baina berehala bueltatu naiz"**

lan eskaintza jaso ditut, eta haiek aztertzen ari naiz: gertuko jatetxeak, apur bat urrutiago daudenak, Michelin Izardunak... Zortea daukat, aukeratu dezaket eta!

### **Nola ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?**

Gustatuko litzaidake Ermuan jatetxea zabaltzea, baina oraindik asko daukat ikasteko eta diru asko behar da. Beraz, momentuz ikasten jarraituko dut, eta gero geroakoak.

**Jon Albizu**  
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Tel.: 943 174 505

**Entzumenaren doako azterketak**  
Audifonoetan azkenengo teknologia

**Quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

www.quetzalmoda.com  
Zubiurre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065

**Horacio Decoración**  
TAPIFERIA - ALIZABIAK - OLAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80 / 688 61 06 38  
www.dghoraciodecoracion.com

# “Erabaki polemikoak hartzea tokatzen denean ere, ez dago urduri jartzeko astirik”

**Maialen Calderón eta Marta Fernández** · Eskubaloiko arbitroak



Txikitatik egon dira Maialen Calderón eta Marta Fernández ermuarrak eskubaloia lotuta, baina hamar eta bederatzirte daramatzate hurrenez hurren kirol horretan epaile-lanak egiten. Gaur egun, Espainia mailako emakumeen kategoriarik altuena arbitratzen dute, eta mutilen bosgarren kategoria. Era berean, nazioarteko txapelketa ezberdinetan parte hartu dute.

Testua **DORLETA VIDAL**

## **Zein izan da zuen ibilbidea arbitroak izan arte? Aurretik eskubaloian jokatzan zenuten?**

Txiki-txikitik hasi ginen eskubaloian jokatzan Errotabarri taldean, eta 16 urte genituenean hasi ginen Ermuko klubeko partida batzuetan epaile-lanak egiten, eta horrela diru pixka bat irabazten genuen. Pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago gustatu zitzaigun eta konturatu ginen gero eta gehiago gozatzen genuela. Momentu batean aukeratu behar izan genuen jokatzan jarraitu ala arbitratzen aritu, eta gaur egun, bizitzeko modu gisa dugu.

## **Elkarrekin egin duzue bide hori, edo bidean elkartu zarete?**

Txikitatik elkarrekin jolastu dugu eta elkarrekin hasi ginen arbitratzen ere. Hasieran, lurralde mailako arbitrajearen aritzen ginenean, batzuetan bakarrik edo beste pertsona batzuekin batera aritu behar izaten ginen; baina askoz gehiago gozatzen dugu elkarrekin aritzen garenean.

## **Zein formakuntza behar da arbitro izan ahal izateko?**

Ikastaroak egiten joan behar zara kategoriaz igotzeko. Gainera, maila nazionalera igotzen zarenean, eta maila nazionalaren barruan maila handiago batera igotzen zarenean, azterketa fisikoak eta teorikoak gainditu behar dituzu.

## **Arauk ikasteaz gain, beraz, prestakuntza fisikoa ere garrantzitsua da. Zer nolako lana egiten duzue gimnasioan?**

Ezinbestekoa da fisikoki ondo prestatuta egotea, partidetan %100a eman ahal izateko. Urtero bi proba fisiko gainditu behar ditugu arbitratu ahal izateko. Gu biok astean gutxienez lau egunetan joaten gara gimnasia, eta indar zein ariketa kardiobaskularrak egiten ditugu partidetan onena emateko eta azken minutura arte fresko egoteko. Finean, erabaki onenak hartzeko.

## **Gogoratzen duzue arbitratu zenuten lehen partidua?**

Hasi ginenean beste arbitro batzuekin joaten ginen beti. Izan ere, hasieran zailagoa da, ez dituzulako arauak ondo ezagutzen eta ez duzulako konfiantza zure buruarengan. Esperientziarekin, gero eta gehiago ikasten duzu, eta konfiantza gehiago hartzen joaten zara.

## **Gaur egun zein kategoriatan jarduten duzue?**

**"Arauk jakiteaz gain, ezinbestekoa da fisikoki ondo prestatuta egotea, %100a eman ahal izateko"**



Espainia mailako emakumeen kategoriarik altuena arbitratzen dugu, eta mutilen bosgarren kategoria. Emakumeak zein gizonak arbitratzen ditugu. Gainera, promesa gazteen proiektu batean gaude, nazioarteko arbitroak izateko, eta nazioarteko mailako txapelketa batzuetara joan gara.

**Esperientzia onak izan dira?**

Bost txapelketa ezberdinetara joan gara uda desberdinetan, ekainean eta uztailen izaten baita. Lehenengo urtean Pragan izan ginen, hurrengoan Eslovakian, beste bat Suedian eta azkena Hungarian. Bestalde, Grezian eta Montenegron egin ziren Mediterraneoeko jokoetan ere egon gara bi urtez. Lehiaketa hauek prestatzeko lau aldiz egon gara Sierra Nevadako Errendimendu Handiko Zentroan, Espainiako gazteen selekzioarekin. Lehen egunetan formakuntzak izaten ditugu, hitzaldiak ematen dizkigute eta azterketa fisiko zein teorikoak egiten ditugu; ondoren, gure federaziora bidaltzen dituzte emaitzak. Hala, arbitroen kontrol handia eramaten da. Esperientzia horiek guztiak oso aberasgarriak dira, bai kirol mailan, bai maila pertsonalean, jende asko eta eskubaloia ikusteko modu desberdin asko ezagutzen dituzu-eta.

**Txapelketa horietan exigentzia maila altuagoa da?**

Oso ezberdina da. Guk senior mailako partidak arbitratzen ditugu ia beti, baina nazioarteko txapelketetan (Europako unibertsitateen arteko bat izan ezik), gazteen selekzioak arbitratzen ditugu. Beraz, maila oso ona da, baina beste trebetasun batzuk behar dira, asteburuero seniorrekin erabiltzen ditugunak.



**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



**FOTOKOPIAK**  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOAK  
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**OSTEOPATIA**  
Pablo Lucena

617 680 156  
info@osteopatialucena.com  
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA

**MIGUEL**

BERTAKO OKELAK

ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBLEKU 3 - 943 170563 ERMUA

Psikologia  
Ongizate pertsonalerako zentroa

**GUZTIOK**

Nahia Rojo Bustindui  
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua  
Hitzorduak: 688 85 18 95

## Gaur egun, elkarrekin egoten zarete kantxan edo partida ezberdinetan aritzen zarete?

Espainia mailan arbitratzen ditugun partida guztietan elkarrekin gaude, eta partidak elkarrekin prestatzen eta lantzen ditugu. Baina, lurralde mailan, askotan, bakarrik edo ikaskide gazteagoekin arbitratzen dugu, haien prestakuntzan laguntzeko.

## Elkar ezagutzeak errazten ditu epaile lanak, edo ez dauka garrantzirik?

Arbitrajea nola ikusten duzun arabera. Guk txikitatik ezagutzen dugu elkar eta oso lagun onak gara. Uste dugu horrek beti laguntzen duela: pertsona bat zure alboan izatea gauza onak ospatzeko garrantzitsua da, baina une txarrak elkarrekin gainditzeko gai izatea ere ezinbestekoa dela uste dugu. Guk badakigu zer gertatzen zaigun aurpegira begiratze hutsarekin. Eta elkarrekin lan asko egiten dugu, dagoeneko familiakoak gara.

## Erabaki polemikoetan urduri jartzen zarete?

Egia esan, partidetan ez dugu urduritasunik sumatzen. Erabakiak hartzea kirol-epaile gisa egiten den lanaren zatia da, eta partida parekatu edo erabakigarriren batean erabaki polemikoak hartzea tokatzen bada, normalean oso kontzentratuta egoten gara jokoan. Ez dago urduritasunerako astirik.

## Partida bukatutakoan komentatzen duzue egindako lana, akatsak, zalantzak...?

## "Huts egiten duzunean, unean bertan konturatzen zara, eta zaila izaten da errorea kudeatzea"



Bai, saiatzen gara partida bukatutakoan egiten. Dena den, normalean, huts egiten duzunean, unean bertan izaten zara kontziente, eta zaila izaten da errorea kudeatzea partida martxan dagoela.

## Zein da lan horretan onena eta txarrena?

Onena, ezagutzen dituzun balioak eta jendea; okerrera, aldiz, gauza batzuei uko egin behar diezula (familiako ekitaldiak, lagunak nahi beste ez ikustea...).

## Nolakoa da gaur egun emakumearen presentzia eskubaloien arbitrajean?

Duela urte batzuk baino hobea. Maila nazionalean dezente gara, eta gero eta presentzia handiagoa dugu. ASOBAL Ligan emakumez osatutako bikote bat dago, eta bikote misto bat. Zilarrean ere lauzpabost bikote gara. Federazioak gure aldeko apustua egiten du eta une honetan baldintza berdinak ditugu.

## Zein da zuen ametsa esparru honetan?

Argi dago Joko Olinpiko batzuetara joatea izugarria izango litzatekeela, baina oso zaila da.

**uriarte asesores** ✓  
Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza  
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197

**MALLA**  
file-apaindegia  
Probaleku 8. behea © 943 17 18 50

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

**arrai**  
Luis Cañas  
Amaren  
Cair  
Ehun  
Txakoli Astobiza  
Pazo Señorans  
Cava Oriol Rossell  
arrai@arrai97.com | Pol.Goitondo-Gaikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Cair  
Casar de Burbia  
Bodegas Valdemar  
García de Olano  
Manzanos Wines  
Pernod Ricard Wines  
Faustino García Martínez.  
T.943176075

FAMILIA  
**LUIS CAÑAS**  
BODEGAS Y VINO  
nitida

Zure publizitatea

**DROGETEN**  
ITTURRI

943 17 93 50

688 63 28 76

drogeten@gmail.com

## Euskara Batzordearen irratsaioak



Ikasturte honetan Euskara Batzordeko ikasleek hilabetean behin irratsaioak eskaintzen dituzte asteazken goizetan. Egun horietan, eskola guztiko ikasleak gimnasioan biltzen gara irratsaioa entzuteko. Bertan, eskolako berriak entzuteaz gain, hilabete horretako urtebetetzeak, abesti eskainiak eta asmakizunak egoten dira. Asmakizunen erantzuna dakienak ixil-ixilik sartu behar du bere erantzuna Euskara Batzordeak duen

irradi-postontzian eta, asmatzaileen artean, hurrengo saioan zozketa egiten da. Irrikan egoten gara irratsaioa entzuteko!

## Braille ikasten!

Antton Kazabonen ipuinaren istorioan guttiz murgildu ginen hasieratik. Gixelak gure bihotzke zatitxo bat lapurtu zuen.



Horregatik, CRI-IBTko Ioanaren laguntzaz, braille sistemari buruz gauza pilo ikasten egon ginen urteko azkenengo asteetan. Ioanak Brailín panpina, bi Perkins idazmakina, beharrezko materiala eta bere jakintza eta laguntza osoa eskaini zigunez, 1. eta 2. mailako ikasle eta irakasleen artean, *Gixela nire laguna da*

liburuaren braille bertsioa sortu dugu. Antton Kazabon idazlea abenduaren 18an etorri zen eskolara, eta bere liburuaren braille bertsioa erakustean izugarritzko sorpresa hartu zuen. Oso hunkituta zegoela esan zigun. Eskerririk asko Ioana, zure laguntzagatik! Esperientzia izugarria izan da mundu hau ezagutzea!

## Belaunaldien arteko topaketak

Oso egun berezia izan zen gure 5 urteko haurrentzat, Ermuko Adinekoen Egoitza bisitatzeko aukera izan bait zuten. Belaunaldien arteko topaketa hau esperientzia aberasgarria izan da, non txikiek zein helduek barreak, istorioak eta maitasuna partekatu dituzten. Kontaezinak dira topaketa horien onurak: belaunaldien arteko enpatia, errespetua eta ulermena sustatzen dituzte, eta bi aldeak aberasten dituzten lotura afektiboak sortzen dituzte. Zoragarria da gure nagusien aurpegiak umeekin elkarreraginean nola argizatzen diren ikustea!

Bisitan zehar, bikoteka lan egin zuten Gabonetako bola eder bat sortzeko, ziur asko egun horren oroitzapen berezia izango da. Gainera, giroa alaitasunez bete zuten gabon kantak abestean, euren berotasuna bertaratutako guztiei kutsatuz.

Adinekoen Egoitzari eskerrak ematen dizkiogu hainbeste maitasunez hartzeagatik eta gure ikasleei esperientzia esanguratsu hau bizitzien uezteagatik. Laster errepikatzea espero dugu!



**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**

Egunero zabalik  
08:30etik aurrera

**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



# Iturgain etxia



Irulitxan, trenbidiaren kontra dago, sasoi baten egondako tren-erromaden onduan. 1882an egindako itxurriaren gaintxuan altxauta, hortik Iturgain izena. Herritarren artian baña Kareaganekua edo Maria Ignacian txaleta izango zan. Honen aitxak, Nikolas Kareaga Ortuzarrek enkarguz eskatu zotsan Urbano Mantxobas Kareaga loibiari eta 1925ean amaitu zeban, etxe horman dakan inskripziñuak argitzen doskun modura.



*Neovasco* izenakin ezaututako estilora egin zeban eta gerora be Mantxobasek beste etxe batzutan erabiliko zitxuan elementuak dakaz: kolorietako kristalak, burdiñazko apaingarrixak, egurrezko balkoia, harrixa bistan, erdi-puntuko arkuak, koloreztatutako egurrak...

Berriztatu barri dago.

Erdikokalian jaiotako arkitektu honen gaiñian gehixao jakitzeko, kontsultatu [https://eu.wikipedia.org/wiki/Urbano\\_Mantxobas](https://eu.wikipedia.org/wiki/Urbano_Mantxobas)





ALEXANDER UGENA FERNANDEZ

GKS-KO KIDEA

## Gerra eta faxismoaren gorakadaz

Krisi kapitalistaren testuinguruan, egoera larria da gazte langileontzat; emantzipatzeko ezintasuna, aisialdirako aukera murrizak, kontrol sozial etengabea... Gainera, testuinguru honetan, gerra hotsak eta faxismo berri bat hazten ari dira Europan zehar.

Gerrari buruz hitz egiten dugunean, urruti dagoen fenomeno bat dela pentsatzera iritsi bagaitezke ere, balak ate-joka ditugu. Mendebaldeko agintariak gerraren aldeko apustua egin dute; Polonian, ikastetxeetan armen bidez tirokatzen ikasteko ikasgaiak jarriko dituzte; Frantzian, soldaduska martxan jartzeko ideia dute; eta ezin aipatu gabe utzi Espainiako gobernuaren aurrekontu militarra gora doala etengabe.

Testuinguru beliko honetan, ezker instituzionalaren ezintasunaz eta gizartearen pobretzeaz baliatuta, faxismo berri bat ari da zabaltzen Europan zehar. Instituzioetan alderdi ultraeskuindarrek gero eta indar handiagoa dute, eta instituzioen bitartez neurri totalitario eta zapaltzaileak bultzatzen dituzte. Kale mailan, diskurtso faxista, arrazista, matxista eta erreakzionarioak normalizatzen eta zabaltzen ari dira, hein handi batean sare sozial eta medioek bultzatutako figurei esker.

Duela urte batzuk pentsaezina bazen ere, ideia hauek Euskal Herrian hedatzen dabiltza. Ermuan eta inguruko hainbat herritan pegatina faxistak agertu baziren ere, gero eta eraso arrazista eta faxista gehiago ditugu gure inguruan. Urteko lehen hilabetea amaitu gabe, eraso arrazista bat jasan behar izan zuen Lazkaon autobus gidari batek eta Falange Vasca talde faxista berriz jarri dute martxan, besteak beste.

Honen guztiaren aurrean, lehen lerroa hartu beharra daukagu faxismoaren eta gerraren aurkako borrokan. Ultraeskuineratze-prozesuari aurre egin, subjektu aktibo bilakatu, kaleak hartu eta borroka egin behar dugu. Honen harira zetorren GKSk urtarrilaren 25ean deitutako manifestazioa, beharrezkoa baita erakustea dena ez dela erreakzioa eta, Euskal Herrian, agenda erreakzionarioaren kontra, milaka gaztek egiten dugula apustu borroka, konpromiso eta antolakuntza politikoaren alde.

**"Gerrari buruz hitz egiten dugunean, urruti dagoen fenomeno bat dela pentsatzera iritsi bagaitezke ere, balak ate-joka ditugu"**

## LEIRE RASCO

Mutrikun jaioa duela 44 urte, 15 urterekin etorri zen Ermura bizitzera. Aita andaluziarra du eta ama galiziarra, baina Ondarroan ezagutu zuten elkar. Hiru anai-arreben artean, gazteena da. Hiru seme-alaba ditu, eta maite du Berano auzotik paseatzea. Alaia eta berbatia, 25 urte beteko ditu aurten ile-apaintzaile.

Testua **DORLETA VIDAL**

### **Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?**

Mutrikuko oroitzenak ditut, eta oso zoriontsua nintzen: herri lasaia zen, denok ezagutzen ginen... Babestua sentitzen nintzen. Bestalde, kostaldean bizitzea oso desberdina da, bertako haizea berezia da.

### **Aldaketa handia izan zen 15 urterekin Ermura etortzea?**

Hemen beste bizimodu bat zegoen, jendea arinago bizi zen, presaka, eta urte luzez lekuz kanpo sentitu nintzen. Urteekin, ni ere ohitu naiz korriketan bizitzen, baina ez datorkit ondo, eta sarritan Mutrikura bueltatzen naiz, herri haren babesera.

### **Ermuko lehen oroitzenak...**

Santiago Apostol eskolara heldu eta, berria nintenez, guztiak nahi zuten ni haien lagun talde txora batzea. Oso barregarria zen. Urtebete egon nintzen han, eta egia esan ez nuen denborarik izan lagun sendoak egiteko.

### **Zertan egin nahi zenuen lan handitan?**

Beti gustatu izan zaizkit ile kontuak, eta orduak ematen nituen panpinak orrazten, baina garai batean misiolaria izatea ere bururatu zitzaidan. Bitartean, DBH ikasten nengoela, gurasoek arrandegi bat zabaldu zuten Gipuzkoa Etorbidean, nik bertan lan egiteko, baina ez zen nik nahi nuena, eta ile-apaintzaile izateko ikasten hasi nintzenean, arrandegia itxi zuten.

### **Zenbat urte daramatzazu ile-apaintzetan?**

2025a oso berezia da: 25 urte beteko ditut ile-apaintzaile, eta ekainean 20 beteko ditut autonomia.

### **Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?**

Jendaurrean egotea asko gustatzen zait, haiekin hitz egin, entzun... Ilea mozteaz gain, psikologoak eta konfidentek gara askotan. Sekretu asko gordetzen ditut!

### **Eta gutxien?**

Ile-apaintzaileok ez gaudela oso baloratuta. Ogibide sakrifikatua da, eta teknikoak, tentsioan gaude beti.

### **Gustatzen zaizu jendeak esatea zehatz-mehatz zer nahi duen, edo nahiago duzu askatasuna izan?**

Biak. Oso argi daukatenekin batzuetan hitz egin behar duzu, eta aholkatu; besteak erronkak dira, eta zure buruak aukera guztiak aztertu behar ditu, batzuetan oso arin.



### **Kalean, jendearen orrazkerari erreparatzen diozu?**

Lehen bai, baina ez egiten ikasi behar izan nuen, bestela ez nuen atsedetik hartzen.

### **Lehiaketetan parte hartzen duzu?**

Bai, bizargintzan, eta asko gustatzen zait. Giro oso polita sortzen da. Saria lortu dut behin baino gehiagotan.

### **Bizargintzan edo ile-apaintzetan zaude gusturago?**

Bietan, mundu ezberdinak dira. Bizargintza dinamikoagoa da; ile-apaintzeta, aldiz, lasaiagoa. Biak nahastea gustatzen zait, orekan egotea.

### **Zer egiten duzu aisialdian?**

Asko gustatzen zait Berano Txiki auzoko baserrietatik bueltatzea egitea txakurrarekin, Onarekin. Ahal dutenean, senarra eta seme gazteena batzen zaizkigu. Bertako bistek bakea eta lasaitasuna ematen didate. Hondartzara joatea ere asko gustatzen zait, Mutrikura, Kalbaixora goiz-pasa edo bazkaltzera...

### **Kiroldegira bai?**

Bai, klase pare batera eta gimnasia noa.

### **Bidaiatzea gustatzen zaizu?**



Bai, pila bat! Panaman, Costa Rican, Argentinan eta Parisen egon naiz, eta aukeran Maldivetara joango nintzateke.

### Musika gustatzen zaizu?

Bai, ia denetik. Lanean rocka eta heavy leuna entzuten dut; meditatzeke, musika zelta; dantza egiteko, reggaetonaren erritmoa gustatzen zait, nahiz eta letrak ez; 90 hamarkadako musika... Momentuaren arabera.

### Telebista, irratia, plataformak...?

Gustatzen zait informatuta egotea, baina ez ditut albistegiak ikusten, eragin txarra daukate niregan. Telesailak eta pelikulak ikusten ditut batez ere.

### Hainbat eratzun dituzu garezurrak erakusten dituztenak. Gustuko dituzu?

Bai, nire alde iluna da... Garezurrak gustatzen zaizkit, beltzez janztea... inorekin partekatzen ez dudana intimitate zati bat irudikatzen dute.

### Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Injustiziek.

### Eta zerk barrea eragin?

Senarrak, seme-alabek, benetako lagunak eta bakarrizketa onak.

### Zure bertute eta akats bana?

Bertutea, ulerbera naizela eta pazientzia handia daukadala; akatsa, kostatzen zaidala mugak jartzea, ez dakit ezetz esaten.

**"Garezurrak gustatzen zaizkit.  
Inorekin partekatzen ez dudana  
intimitate zati bat irudikatzen dute"**

### Jatun ona zara?

Oso haragizalea naiz, baina saiatzen naiz arrain gehiago jaten. Kalbaixoko zapoak zorutzen nau!

### Biziorik?

Kafea. Bizioa baino gehiago, beharra da...!

### Eguneko zure momentua...

Lanean hasi baino lehen kafea hartzea Goien tabernako lagunekin.

### Zer eskatzen diozu lagun bati?

Zintzoa izatea.

### Puntuala zara?

Lanean bai, bestela... saiatzen naiz.

### Elkarrizketa batean, nahiago duzu entzun edo hitz egin?

Gaur egun, lehenengo entzuten dut, eta gero hitz egin.

### Zure bizitzako egunik zorionsuena?

Seme-alabak jaio zirenean.

### Zerbait egin ez izanaren pena duzu?

Bai, euskarari eutsi ez izanaz. Mutrikutik Ermura etorri nintzenean, hemengoek ez zidaten ulertzen, eta lotsa ematen zidan euskaraz hitzegitea, barre egiten zidatelako. Euskara baztertu egin nuen, guztiz galdu arte. Nire ustez, berebiziko garrantzia dauka eta asko gustatzen zait nola sustatzen ari den euskara Ermuan.

### Iragana edo etorkizuna ikusi nahiko zenuke?

Atzera sekula ere ez: bizitzan gertatzen zaizkigun gauza guztiek ikasteko balio digute, eboluzionatu ahal izateko. Etorkizunak jakin-mina sortzen du, baina egunero hartzen ditugun erabakiekin aldatzen goaz.

### Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Ez dakit. Agian munduak eztanda egin duela eta berriro ere zerotik hasi behar dela. Ez dakit nola demontre ez garen oraindik desagertu!

**Proba-Leku**  
Neapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
Tel. 943170542

**mari asun**  
LORADENDA




Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**Enter**  
Informática

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendurrena 19, behea  
943 17 90 37  
enter@informaticaenter.com

**solozabal  
tabakoak**



torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



**LA FORJA KAFETEGIA**

# 1955


## E R M U A

Plazan, Pedromarianeko etxepean, orduko Udaletxe parean, Pedro Maria Izagirreren etxeke lehen solairura zihoazen eskaileren ondoan erretratatu zituzten ezkerretik eskumara, atzean Jose Antonio Olabarri, Luis Mari Izagirre, Estanis Izagirre eta Julian Telleria. Aurrean Manu Solozabal, Jesus Arrizabalaga eta Jaime Arrizabalaga.



# 1979

## M A L L A B I A



Xabier Gineak ateratako argazki hau *Egin* egunkarian argitaratu zen, 1979. urtean, Jesus Naberanek egindako artikulu batekin batera. Argazkiarekin ondoan hau idatzi zuten: "Atajua hartzea pentsatu nuen eta begira nondik nora noan. Ba al zatozte nirekin? Oraindik behea urrun dago eta pixka batean ez dugu muturrekorik hartuko". Argazki hau atera zanetik ingurua asko aldatu da. Ea asmatzen duzuen zein toki den...

BAR  
**JUBILETXE**  
ERMUA

Hemen eskatu!

**LEIRE RASCO**  
BIZARTEGIA  
ILEAPAINDEGIA  
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS  
ERMUA (BIZKAIA)

## IRAGARKI LABURRAK

### SALEROSKETAK

Garaje itxia salgai,  
Valdespinako Markesaren  
parkean (48. zenbakia).  
© 652 70 10 75  
© 943 17 48 19.  
Esperanza.

### LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako  
matematikak, euskara eta  
beste ikasgaietako klaseak  
ematen ditut arratsaldez.  
C1 ingelesa eta euskara. ©  
688739358

Neska euskalduna  
eskaintzen da haurrak  
goizez zein arratsaldez  
zaintzeko. Esperientzia eta  
magisteritza ikasketekin.  
© 648625209.

Mutil langile eta  
arduratsua bere burua  
eskaintzen du pertsona  
nagusiak zaintzeko.  
Esperientziarekin. Atsegina  
eta adikorra. © 632 708 954



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com  
Azken eguna: **Otsailaren 21a.**



### Otsailaren 5ean eta 14an

Zorionak bikote!! Zein azkar ari zareten hazten!  
Osasuntsu eta zorionsu jarraitu hazten. Gu,  
zuen ondoan jarraituko dugu harro zuen  
ibilbideaz disfrutatzen. Etxeko poza zarete!  
Maite zaituztegu: aita eta ama.



### Otsailaren 15ean

Zorionak **Mateo!** 4  
urte! Segi hain alai eta  
maitagarri beti. Asko  
maite zaitugu bitxito!  
Muxu pila etxeko guztien  
partez!



### Otsailaren 22an

Zorionak maitxia!! 2  
urtetxo!! Zure bizipozak  
betiko alaitu gaitzala,  
izugarri maite zaitugu.  
Etxekoien partez.



### Urtarrilaren 17an

Zorionak **Arlet!**  
Urtebete etorri zinela  
gure bizitza alaitzera!  
Patxo pottolo bat familia  
guztiaren partez.



### Otsailaren 18an

Zorionak **Martin!** 7 urte  
beteko dituzu! Aupa gure  
txirindularia!! Ondo  
pasatu zure egunean  
familia guztiaren partez.



- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitritxa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

**MUSIKA  
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00  
albokamusikaeskola@hotmail.com

## Infreñu Taberna



**Kardenal Orbe plaz**  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)





**SEHIGA**

PROTECCION LABORAL  
PLAN BARRERAKO  
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

## ARRIETA CORDEVI

Etxeresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...  
...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Asteartetik ostiralera  
00-12:00 15:00-19:00  
arunbata 8:30-13:00



943 170474

ileapaindegia

## Silvia

peluqueria




688819336



## 30 OTSAILEKO AGENDA

### ZINEA

#### 1etik 3ra:

"Vivir el momento" +  
"Desmontando un elefante"

#### 8tik 10era:

"Las vidas de Sin Sing" +  
"La fiebre de los ricos"

#### 15tik 17ra:

"Babygirl" +  
"El juicio del perro"

#### 22tik 24ra:

"Mikaela" + "María Callas"  
Ermua Antzokian.

### ZINE-KLUBA

#### Hilak 6:

"La luz que imaginamos"

#### Hilak 13:

"Cómo hacerse millonario  
antes de que muera la abuela"

#### Hilak 20:

"Itoiz, udako sesioak"

#### Hilak 27:

"Memorias de un caracol"  
Ermua Antzokian. 20:30ean.

### UMEENTZAKO ZINEA

#### Hilak 2:

"Norbert"

#### Hilak 9:

"Flow, un mundo que salvar"

#### Hilak 16:

"Polican"

#### Hilak 23:

"Azerik eta Erbi basoa  
salbatzen dute"  
Ermua Antzokian. 17:00etan.

### MUSIKA

#### Hilak 5:

Alboka Musika Eskolako  
III. Musika Jole Bakarlarian  
jaialdia. 18:30ean. Ermua  
Antzokian. Sarrera doan.

#### Hilak 7:

Kontzertua: Muerto.  
20:30ean. Ermua Antzokian.  
Sarrerak: 12 €

#### Hilak 21:

Kontzertua: "Kantu berri bat  
gara". Jon Maia. 20:30ean.  
Antzokian. Sarrera: 12 €

#### Hilak 22:

Piano Jaialdia. 10:00etan.  
Ermua Antzokian. Doan.

#### Hilak 22:

Blues kontzertua: Dani Ne.Lo  
& Chris Corcoren. 20:00etan.  
Lobiano Kulturgunean.  
Sarrerak: 10 €.

### MUSIKA ETA DANTZA

#### Hilak 28:

Flamenco jaialdia:  
Andaluziako eguna.  
19:30ean. Ermua Antzokian.  
Sarrera doan.

### ANTZERKIA

#### Hilak 14:

"Emakume baten borroka  
eta metamorfosia", Tanttaka  
taldea. 20:30ean. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 10 €

### ERAKUSKETAK

#### Hilaren 5etik 18ra:

Argazkiak: Ermua Antzokia  
2024. Óscar Blancoren lanak.  
Lobiano Kulturgunean.

#### Hilaren 21etik 27ra:

Argazkiak: Amagandiko  
edoskitzaeri buruzko argazki  
lehiaketara aurkeztutako  
lanak.  
Lanegunetan 18.00etatik  
20.00etara eta asteburuan  
12:00etatik 14:00etara.  
Lobiano Kulturgunean.

### UMEENTZAKO EKITALDIAK

#### Hilak 1:

Ipuin-kontaketa ingelesez.  
17:30ean. Lobiano  
Kulturgunean.

#### Hilak 15ean:

Antzerkia: "Scrooge eta  
mamuak", Khea Ziater  
taldearen eskutik. 17:00etan.  
Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

#### Hilak 22:

Ipuin-kontaketa. 17:30ean.  
Lobiano Kulturgunean.

### BESTELAKOAK

#### Hilak 4:

Agata Deunaren kalejira.  
18:00etatik aurrera.  
Abeletzeko egoitzatik  
irtenda.

### INAUTERIAK

#### Otsailak 27, osteguna.

#### Eguen zuri

16:00etan: Oilarraren jokoa.  
17:30ean: Diskofesta: Xaibor  
DJarekin.

#### Otsailak 28, ostirala.

#### Hartza eguna

18:30ean: Kalejira  
Udaletxetik irtenda.

#### Martxoak 1, larunbata

12:30ean: Mozorro  
lehiaketaren kuadrillen  
kalejira.

13:00etan: Kalejira Irulitxa  
txarangarekin.

17:30ean: Haurrentzako  
txokolatada.

18:00etan: Dantzaldia Zirika  
Zirkus taldearen eskutik.

19:00ean: Kalejira Irulitxa  
txarangarekin.

19:30ean: Haurrentzako  
mozorro lehiaketa.

20:00etan: Diskofesta  
Maximunsekin.

23:00etan: DJ Festa Los  
40rekin.

#### Martxoak 4, asteartea

16:30ean: Diskoteka.

19:30ean: Erromeria Ekhy  
taldearekin.

23:00etan: DJ Festa Oihan  
Vegarekin.

Ekitaldi guztiak Orbe  
Kardinalaren Plazan.



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**Otro Plan**  
como en casa  
Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

VI Centenario 5 - ERMUA  
943 172 412

**PRO**  
arraindegia



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA



**AMALUR**  
FISIOTERAPIA

688 61 98 96  
zeharkale 12 bajo  
48260 ERMUA

IRENE ESQUE col.1665 EGOITZ FORMOSO col.1675



**irale**  
Horts Klinika  
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8  
48260 Ermua, Bizkaia  
Tel. 943 17 71 34

# OSASUN GIDA



**IR AZ**

Odontologia  
Fisioterapia

943 578 617  
615 793 717  
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen  
den odontologia

La odontología  
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04  
✉ info@clinicasanpelayo.com  
📍 San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)



**LEIRE MAYORA**

**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,  
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,  
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

# Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



[www.antxustegi.com](http://www.antxustegi.com)



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA  
ETA HARRIA



LURZORU  
LAMINATUA



MARGOTUTAKO  
PARERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO  
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692